



**2012KO IRAILAREN 24KO  
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko irailaren hogeita lauan, arratsaldeko seieta, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Milagros Madrazo Rada, Inazio Estensoro Eskisabel, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro eta Ane Irastortza Izagirre zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

**I.- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOKKETA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren 2012ko urriaren 21ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Hauteskunde Erregimen Orokorrekoa den Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

**II.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta besterik gabe, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko seiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

